

Arratoi pirata

**Pertsonaien intentzioak eta
elkarrizketak lantzeko**

Elkarrizketak

Untxitxoarekin

Bidetik saltoka untxitxo bat heldu zen. Bat-batean, gelditu zen eskuak altxatuz bide erdian arratoia baitzen erraten :

A:- « Nor dator bidetik? Emaidazu zure tarta eta pasta guztiak!

U:- Pastak? Ez!

A:- Eman txokolatea eta pastelak !

U:- Agur!"

A: - Ez al dakizu naizela Arratoi pirata! Arratoi pirata! Arratoi pirata! Bai! Bai! Arratoi pirata naiz eta duzun guztia **niretzat** da!

A: - Ez dut pastelik! Lore xorta bat baizik. Begira! »


Arratoi piratak mespretxuz begiratu zuen. Baina agindu zion:

A: - « Emadazu!

U:- Hartu!

A: - Hirusta hauek ez dute oso goxo ematen! Hirusta hauek izugarri zaporegabeak dira!

Baina Arratoi pirata naiz beraz hirusta hauek **niretzat** dira! »



Urtxintxarekin

Bidetik urtxintxa bat heldu zen. Bat-batean gelditu zen hostoak bezala dardaka. Bere aurrean, Arratoi pirata baitzeen oihukatuz:

A:- " Poltsa! poltsa ala bizitza! Zure opilak eta pastelak eman! Baita txokolatea ere! Arratoi pirata banaiz! Arratoi pirata! Eta bidean dagoen guztia **nirea** da eta kitto!

U: - Ez dut opilik. Hur zaku baizik ez da.

A: - Hurrak?"

Arratoi lapurrak zakua hartu eta oihukatu zuen:

A: -"Ustelak direla ematen du. Oh! Hur hauek izugarri gogorrak dira!

Baina arratoi pirata naiz eta hur hauek **nireak** dira!

Arre!"



Xinaurriekin

Bidetik inurriak heldu ziren. Bat -batean, izutuak gelditu ziren.

Hortzak erakutsiz, arratoi piratak irribarretsu ohiukatu zuen:


A: - "Geldi! Zuen gozoki eta xurgakiak eman! Ni Arratoi pirata banaiz! Arratoi pirata! Arratoi pirata! Bai, ni, Arratoi pirata naiz eta duzuen guztiak **nirea** da!

X: - Ez dugu gozokirik! Hosto berde hau baizik ez dugu!"

A: - Hau ezin da izan! Emaidazue!

Hosto hau itsusi eta mikatza da eta fin baino finagoa da! Baina, Arratoi pirata naiz eta hosto hau jango dut...**nik**.

Goazen! »





Ahatearen ahizparekin (oihartzuna)




Ahatearen ahizparekin (oihartzuna)




Pertsonaien intentzioak

Pertsonaien lekuan eman



Nor da?



Zer pentsatzen du arratoiak?





Zer begirätzen du arratoiak?







